



Jota zer den badakigu?

■ Javier SANTAMARIA (Gaztedi Dantzari Taldea)

Galdera hau egiterakoan, dantzari eta musikari guztiek, irribarre zabal batekin, erantzungo lidakete:

- "Noski baietz, zer uste duzu ba?"

Eta beste galdera honekin jarraituko banu:

- "Zertan datza jota eta fandangoaren arteko ezberdintasuna?"

Batzuk (gehienak agian?): "Ez ote da gauza bera?" erantzungo luke.

Beste batzuegandik honako erantzuna jasoko nuke:

- "Fandango eta jotaren ezberdintasuna kopletan datza. Jotak koplak (abestutako

zatia) ditu eta fandangoak ez.

Biak erritmo hirukoitzak dira, fandangoa 16 konpaseko multzoetaz osaturik, eta jotak, ordea, 16 konpaseko bi zati ditu eta koplak (normalean abesten den 28 edo 32 konpaseko zatia)".

Nere ustez erantzun honetara ez litzateke jende asko helduko, behintzat Bizkaian.

Baina oraindik zerbait gehiago sakondu genezake:

- "Jota eta fandangoa berdin dantzatzen dira?"

edo beste galdera hau:

- Esan dugu jotak 16 konpaseko bi zati eta

kopla dituela, baina bi zati hoiek, berdinak dira jotzeko?, eta dantzatzeko?

Oso pozik egongo nintzateke baten batek erantzungo balit.

Eta, esango didazue, zer dela eta hainbeste zentzugabeko galdera egitea?

Zehazki erantzutea baino, orain dela denbora gutxi niri gertatutakoa kontatuko dizuet.

Pasa den maiatzaren hamarrean, bizkaiko Lutxana herrian dultzainero eguna ospatu zen. Han bildu ginenak inguruko dultzaineroak izan ginen.

Aurtengo edizioan El Regatoko (Bizkaia) dultzainero bati, Isidro Molanbani hain zuzen, omenaldia egin zitzaion.

Goizean zehar guztiok izan genuen jotzeko aukera, eta baita berak ere, eta haren joeran entzun ahal izan genuen bizkaiko dultzaineroen estilo berezia. (Erreferentziak Bizkaia mailan mugatzen ditut, hori bait da ezagutzen dudana).

Halako batetan Isidro hurbildu zitzaidan eta esan zidan:

-"Ondo jotzen duzu, baina igertzen da jota dantzatzeko ez dakizula."

Nere ondoan zeudenak apur bat harrিতa gelditu ziren, ni dantza talde batetan ibilia nintzela jakinda, eta agurearen zorakeria bat besterik ez zela pentsatu zuten.

Haien harridura nabarmenagoa bilakatu zen nere komentarioa entzuterakoan (dultzaineroa aurrean ez zegoenean):

-"Ondo pentsatuta, berak (Isidro) arrazoi guztia dauka".

Eta halaxe da. Dantza taldeetan, (Bizkaia) ez da jota dantzatzeko ikasten, fandangoa baino. Talde bakoitzak baditu "bere" bost edo sei pausu ezberdin.


Gero, jota bat entzuterakoan, fandangoaren pausuak sartzen ditugu, kontutan hartuta biak erritmo hirukoitzak direla.

Baina Isidro urrunago zihoan.

Haren esanez, jotaren bi zatiak ezberdinak dira bai dantzatzeko eta jotzeko ere, eta zati baten musikak beste zatitik bereizten duen zerbait badu.

Orduan, edozein 16 konpaseko zatiak ez du balio lehenengo zatia izateko.

Hildo berdinetik zihoan Nikolas Jaio,



Trikitrixa. Iurreta (BIZKAIA) E. Xabier DUEÑAS

Durangoko (Bizkaia) dultzaineroak esan zidana:

- Jotak hiru zati ezberdin ditu:

* Triki-triki edo takoneo: Pausu erritmo bizian, lekuan egiten delarik.

* Batetik besterako: Izenak ondo deskribatzen duenez, dantzaria alboetara mugitzen da.

* Baltseoa, "Agarrao" a: Zati honetan kopla abesten da eta dantzariak "agarrao" an dantzatzeko dute. ("agarrao" a debekatu zuten arte)."

Argi dagoena da jotako pausu bakoitza ezberdina dela dantzakeran zein musikan.

Orain arte lortu izan ez dudana da zati edo pausu bakoitzak zein baldintza bete behar dituen jakitea, musikalki zer izan behar duen zati batek lehenengo zatia izateko, eta zer bigarrena izateko.

Helburu hau lortu ezker, pausu haundi bat eman ahal izango genuke jota gal ez dadin, gure nagusiak ezagutu duten eran.